

Bilbon kaleko horma baten gainean pintada hau hau irakur daiteke, esku ezezagun batek idatzirik: "Hildakoen bizia bizion oroitzapena da". Oraingo esprailari horren egia biribila ukatu gabe, gogoan izan behar da ideia horri antzinako klasikoek "verba volant, scripta manent" —hitzak hegaz, idatziek iraun— erantsi ziotela, hau da, zerbait idatzirik utzi digutenean, pertsonen hobeki oroitzen garela azpimarratuz, eta arrazoi handiagoarekin, paperean utzia ongi idatzia izan bada. Eta hauxe da, zalantzarik gabe, Gabriel Aresti idazlearen kasua.



Nortasun handiko pertsona zen Gabriel, argazkietan argi nabari denez.



SORRERA ETA GAZTAROA

Gabriel Maria Aresti Segurola Bilbon jaio zen 1933.eko urriaren 14an. Hortaz, Espainiako gerra zibila hasi zenean, hiru urteko haurra zen bera eta ongi ezagutu zuen gerra ondoko faxismoak euskaldunen aurka erabiliriko errepresio giro latza.

Maila apaleko familian hazi zen. Ama abertzalea zuen; aita, aldiz, frankista izan arren, etxean euskaraz hala-hola zekien bakarra zen. Edonola ere, euskararen galera ez zen familia hartan oso aspaldikoa. Izan ere, Arestiren aitona-amona gehienak euskaldunak ziren, baina Gabriel gazteak ez zuen haien hizkuntz jakiteaz baliatzerik izan, umetan hil zitzaizkion eta.



Bere ama Asun Seguro-laren ondoan.



Gabriel eskolan, behean hirugarrena ezkerretik.

Barroeta Aldamar kalean bizi izan zen, hots, Bilboko portuaren ondoan; zamalari, kamiolari eta garraioarekin loturiko langile mordo egunero biltzen zen auzunean. Horrek, noski, txikitandik ezagutarazi zizkion gizartearen beheko mailen egoera eta beharginen bizimodua, bere handitasun eta miserien argi-ilunekin. Geroago, Gineako zuren inportazioaz arduratzen zen Compañía Vasco-Africana enpresako zamaketa-arduraduna izan zen eta horrek portuko langileekin are harreman zuzenagoak izateko aukera emango zion.

Ikasketak Bilbon eginak zituen. Hasierakoak Berastegiko Eskoletan, Albiako lorategien aitzinean, Sabino Aranaren jaiotetxearen parean, hain zuzen. Ondoren, Bilboko Merkataritza Eskolan Merkatal Peritua titulua

eskuratuko zuen. Kontu-eramailea izan zen bizibidez, eta gorago aipaturiko konpainiaz gainera, beste zenbait enpresatan lan egin zuen Laudion, Bilbon, Eibarren eta Barakaldon, hau da, beti langile-herrietan. Guztiotan bere lana zintzo bete zuen, bere azken urteetan gaixorik gelditu arte. Halere, bere nortasun-agirian bere egiazko bokazioa jartzen zuen: idazlea, alegia.



G. Aresti zortzi urterekin, lehen jaunartzea egin zuenean.



Gabriel, hamabost urte zituenean, jadanik euskaraz ikasten hasia zen.

EUSKARA IKASTEN HASTEN DA

4 Batzuetan nahasiak eta korapilatsuak izaten dira kausa-ondorioen hariak. Aita frankista izatea pisu mingots eta nolabait lotsagarria zuen Gabrielelek, gainerako senideen abertzaletasuna kontuan izanda. Berak aitortzen zuenez, aitaren erru hori nolabait garbitu nahiak bultzatu zuen bera euskaraz ikastera. Hasi ere, 12 urterekin hasi zen, bera bakarrik eta metodorik gabe; autodidakta gisa, beraz.

Egia esan, ez zen batere erraza 1950.eko hamarkadan, non eta Bilbon, norbaitek bere kontutik euskara ikastea inolako gidaritzarik izan gabe. Alde batetik, gure literatur hizkuntza oraindik euskalkitan zatikaturik zegoen, bizkaiera eta gipuzkera nagusiak izanik. Bestalde, frankismoak euskararen inguruko arazoak askatasunez eztabaidatzeko inolako aukerarik uzten ez zuenez, gerra aurreko garbizalekeria-giroak nagusi zirauen oraindik, irtenbide egokiagorik ezagutu gabe. Eta euskara latinetik ez zetorrenez gero, garbizalekeria tentazio nabaria izaten zuten orduko euskaldun berri guztiek.

Gabriel Euzkeltzale-Bazkuna elkartearen *Método gradual para*

aprender el Euzkera izeneko irakasbide hiperpuristaz baliatu zen, sinets ezineko proposamen irrealak euskara "jator"-tzat eskaintzen zituen irakasbideaz. Arestik berak kontatzen zigunez, behin Debara joan eta bertako jatetxe batean "arrautza elia gaimelduta" eskatu omen zuen, arrautza frijitu pare bat eskuratu nahirik. Eta zerbitzariak honela erantzun omen zion: "Barkatu jauna, baina hemen ez dakigu alemanez". Horrela konturatu zen, antza, liburuko hizkuntza artifizial hartatik irten eta herriko euskarara hurbildu beharra zuela, herriko jendearen ohiko mintzaira eredu harturik.

Euskara ofiziala ez zen eta inolako onespén sozialik ez zuen garai hartan, zaila izaten zen, benetan, maisu egokiak aurkitzea. Apaizak izaten ziren, era ofiziosoan behintzat, beren predikazio eta dotrinetan euskara



gehienik erabiltzen zutenak. Normala zen, beraz, eznormaltasun-giro horretan, euskaraz aditurik handienak erlijiosoen artean aurkitzea. Eta horiexengana jotzen zuen maiz Gabrielek argi bila. Maiz Begoña aldean "apaiz beneragarri" jubilatuek zuten babesetxera joaten zen, erlijioso zaharrek euskaraz eta euskararen gainean mintzatzera. Garai batean frantziskotar gazte euskaltzaleekin ere harreman handia izan zuen eta, dirudienez, berak ere inoiz fraide joateko gogoia izan omen zuen.

Nola edo hala, gure hizkuntza ongi ikasi zuen, ikasi ere, hogeita bat urte zituenean euskaldun erbesteratuek Guatemalan argitaratzen zuten *Euzko-Gogoa* aldizkarian euskara idazten hasi zen eta. Arestik beti izan zuen teatorako joera eta Antonio Maria Labaien tolosarraren lanak ezaguturik, beronekin eskutitzez harremanetan jarri zen 1953. urte inguruan. Geografi urruntasuna zela eta, garai hartako

garraiabide erosorik ezagatik areagotua, Labaienek Alfonso Irigoien euskaltzaina bidali zuen Arestirengana, euskal munduan gida zezan. Honexengandik jasoko zuen Arestik, seguraski, bertsolaritza-zaletasuna, behin ere utzi ez zuena. Alde horretatik, aita Zavalak *Auspoa* sortan argitaratzen zituen bertso-liburuak irrikaz miretsi eta irensten zituen, iturburu garbieneko urak balira bezala. Irigoienen gomendioz, halaber, hasi zen euskal liburu klasiko zaharrak irakurtzen (Etxepare, Axular, Kardaberaz, Mogel...) eta autore herritarragoak ere bai (Kirikiño, Orixe, Lizardi, Altube...).



Arantzazuk biziki erakartzen zuen Gabriel: Argazkian Luis Villasante eta Joxe Azurmendi idazleen artean.

Euskal literaturaz gainera —eta hori baino lehenago—, munduko literatura orotara irekirik egon zen Gabriel. Txikitandik irakurle amorratu horietakoa izan zen. Gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta, neurri batez, alemanez ere zekienez gero, hizkuntza horietan idatziriko obrak lehen eskutik zituen ezagunak. Ez ziren edonolakoak izan, noski, hortik atera zuen kultura, ikuspegi zabala eta estilo ondarea.

GABRIELEN KEZKAK: LITERATURA ETA POLITIKA

Gaztetan G. Aresti PNV/EAJko EGI gazte-taldearen inguruan ibili zen. Inoiz Baionaraino ere joan zen Jesus Maria Leizaolaren hitzaldiren bat entzutera. Halere, erbestean hainbat denboran bizi behar izanak eta Euskal Herriko gazteria berriaren egiazko kezka eta helburuak ongi ez ezagutzeak, hots, jeldide zahar batzuen politika-jokabide kontserbadoreegiak, hizkuntzaz zituzten ideia purista desfasatuekin batera, urrundu egin zuten Gabriel horiengandik.

Bere anaia zaharragoak, Juan Marik, Gabriel Bilboko *La Concordia* kafetxeko tertulia politiko-literarioetara eraman ohi zuen. Bertan ezagutu zituen Arestik Vidal de Nicolás, Angel Ortiz Alfau, Ramiro Pinilla, Gabriel del Moral,



La Concordia-ko lagunartea. Ezkerretik hasita: Goiko, Emiliano Serna, G. Aresti, Meli, M^a Victoria eta Juan Mari Aresti, Vidal de Nicolás, José Maria Basaldua eta emaztea, Gregorio San Juan eta emaztea, Angel Ortiz Alfau, Sabina de la Cruz eta Alfonso Irigoien.

Gregorio San Juan eta Bilboko beste erdal idazle batzuk. Ordukoxea da, gainera, Agustin Ibarrola eskultorearekin eta Martin Arrizubieta euskaldun apaizarekin beti izan zuen adiskidetasun handia. Gehienak, guztiak ez esatearren, ezkertiarak ziren baina euskal mundutik erabat aparte bizi ziren. Horien ezagutzari esker Gabrielek Blas de Otero, Gabriel Zelaia eta Curros Enríquez poeta sozialekin egin zuen topo, eta horien eragina nabarmen ageri da haren harrezkeroko obretan. Garai berean hasi zen marxismoaz interesatzen.

Karlos Santamaria, Gregorio Monreal eta, batez ere, Juan San Martin bezalako euskaldun intelektual aurrerazaleekin ere harreman onak izan zituen. Bestaldetik, Jon Mirande zuberotar faxistarekin ere tratu ona zerabilen, bien euskaltzaletasun eta literaturzaletasunean oinarritua.



G. Aresti bere adiskide Angel Ortiz Alfau bilbotarrarekin.

POETAREN IDEOLOGIA

Maiz aipatu da idazle eta artista “espainolistek” Arestiren ideologia ezkertiarrean izan zuten pisua baina, aldi berean, maizegi ezkutatu da Arestik eta bere lanak lagun horiek euskal arlora hurbiltzeko izan zuten eragin nabarmena. Izan ere, ordurarte, euskal literatura, eta oro har, euskal kultura osoa, zerbait baserritar, atzeratu eta liluragabetzat kontsideraturik zegoen kaletar “ikasien” artean. Arestik, aldiz, bere nortasun dialektiko eta obra baliotsuekin argi erakutsi zien euskara gai zela goi mailako literatura egiteko, berak elebidun argitaratzen zituen liburuek ederki frogatzen zuten. Ordudanik Euskal Herriko sozialista eta komunisten aldetik euskal erreibindikazioak bestelako begiekin ikusten eta bestelako “tolerantzia” onartzen hasi ziren, lehenbizikoek azken aldion, berriz ere, ahantzi samar dituzten arren.

Aresti ideologiaz marxista ortodoxo edo, berdin dena, “zurrunezia” dela esan dezakegu. Ez zen sekula Espainiako Alderdi Komunistako kidea izan, batzuek interesatuki inoiz bestelakorik esan badute ere. Eta horren arrazoia garbi zegoen: alderdi horrek euskaldunon nazio-arazoari buruz orduan zuen jarrera

zentralistagatik. Eta Gabriel, ororen gain, euskalduna zen, Euskal Herriko semea, eta euskararekiko epelkeria etxeko abertzaleei aurpegiratzen bazien, ez zegoen bekatu hori kanpokoei barkatzeko prest. Ondo gogoan dut berarekin Baionara joaten ginenean —bere automobilean Patxi Altuna eta biok maiz eramaten baikintuen, euskararen batasunaren inguruan Txillardegirekin, Xarritonekin eta Iparraldeko beste idazle batzuekin bilerak egiteko— zer egiten zuen Arestik Irungo muga pasatzean. Behobiako zubiaren erdira heltzean beti “Gora Euskadi Askatuta” oihu egiten zuen, Francopeko agintetik irtetean bere barruko gogoasaskatu eta askatasun-deia adierazi nahirik.

Erljioari dagokionez, hasieran fededuna izan zen, geroago, zenbait kristauren eta bereziki Francopeko eliz hierarkien faltsukeriaz nazka eginik, erlijioa utzi bazuen ere. Bere jokabidean, aldiz, fedea galduriko pertsona askoren antzera, moral zuzena zeraman, eta era guztietako hipokrisia, injustizia eta zapalketen aurka zintzo eta jator agertzen zen beti. Batzuetan erlijioari zor handia ziola esaten zuen umorez, haren gustuko edaririk maiteena Bénédictine baitzen, Arestiren klerikalismo bakarra.

GALIZIAR-KATALANEKIN HARREMANETAN

Katalan eta galiziar literaturak ere ez zituen batere arrotz. Gaur hori normala irudi dakiguke, baina gogoratu beharra dago, frankismoaren propaganda ofizialagatik hizkuntza horiek “dialekto”-tzat jotzen zirenean, galego-katalanen lumen emaitzak, euskarazkoekin batera, gure artean behintzat, aski gutxietsiak eta mesprezios ikusiak izaten zirela. Galiziarak, bestalde, Euskal Herrira helduriko etorkin langile pobreak izaten ziren, maiz erdeinuz ikusiak. Gabrielekek, ordea, haiek, haien hizkuntza eta kultura benetan estimatzen eta goraiatzen zituen. Zinez esan daiteke gaur hain modan dagoen Galeuska edo Bartzelonako itun autonomikoaren aitzindari kartsua izan genuela Aresti,



Gabriel Mundakan, galiziar literatur txapelketa bateko epaimahaikideen artean

Espainiako zentralismopeko nazioen adiskidantza eta elkartasuna hasiera-hasieratik bultzatu zuen eta.

Gauza jakina da oso ongi konpontzen zela Euskal Herriko Galiziako etxeetakoekin, eta maiz horiek antolaturiko literatur txapelketetako epaimahaietan parte hartu zuela. Galizieratik F. Marcos da Portela-ren *Nekazariaren dotrina* (1969), Castelao-ren *Nos* (1974) eta García Lorcaren *Seis poemas galegos* (1974) euskaratu eta eman zituen argitara. Ricard Salvat eta Salvador Espriu katalan poetekin ere oso harreman onak izan zituen.

GABRIEL ITZULTZAILE

Kanpoko literaturei dagokienez, ongi konturatzen zen Aresti gure hizkuntzaren oinegiturarik ezaz, atzerriko letren emaitzak gaztelaniaz helduriko itzulpenen bitartez irakurri behar genituen eta. Izan ere, Espainian oso ohikoa ez bada ere, kanpoko literaturetako autore asko —Europaren ekialdekoak batez ere— beren baitako sormen-lanarekin batera, aldi berean, atzerriko obrak itzultzen saiatzen dira eta hori gogoan izanik, bere gustuko autore arrotz baliotsu askoren lanak euskaratzen ahalegindu zen, eta oso trebeki, Mitxelenak berak aitortzen zuenez. *Euzko-Gogoa* eta




Egan aldizkarietan, adibidez, Shakespeare, Baudelaire, Hugo Wast, Tomás Meabe, Juan Ramón Jiménez, Bertold Brecht eta Blas de Otero-ren lanak argitaratu zituen euskaraz. Aparteko liburu gisa, gainera, Boccaccio-ren ipuin hautatu batzuk (*Dekamerone tipi bat*, 1979) eta Nazim Hikmet poeta turkiarraren *Lau gartzelak* (1971) eskaini zizkigun.



ARESTIREN POESIA

Dena den, Gabriel Arestik arlo bereziena poesia izan zuen, eta horrela salatzen dute bere bizitzan eremu horretan izandako literatur sari ugariak: Loramendi saria (1959), Orixe saria (1963), Lizardi saria (1966) eta J.M. Iparragirre saria (1968). Lehenbiziko lan garrantzitsua, eta kritikarien iritziz literatura aldetik hoberena, *Maldan behera* izan zen, Euskaltzaindiak *Euskera* aldizkarian 1960an argitaratua. Hor gizakiaren bilakabide historikoa euskal poesiarenarekin bikainki bilbatzen jakin zuen.

Entzute handiagoa, ordea, haren bigarren obrak izan zuen, *Harri eta herri-k* (1963). Hau, edukiz eta formaz, lehenagoko euskal poesiaren garabide ederra izan zen, eta anitz berrikuntza formal ekarri zituen. Gizakiaren betiko sentimenduak bestela aurkezten ditu, baserri-giro lasai eta





Bilduma honek lehenegoz ikusi zuen argia 1960ko *Euskera* aldizkarian.

ederretik derrigorrez kale latzera bizitzera beharturiko pertsonaren ikuspuntutik. Bestetik, protestako gai sozialak ere nabarmen darabiltza eta ordurarteko garbizalekeriarekin behin betiko hausten du. Bide beretik abiatuko ziren, besteak beste, *Euskal harria* (1967) eta *Harrizko herri hau* (1970).

Arestiren poesiak arrakasta itzela izan zuen gazte-jendearengan. Gerraurreko euskal poesia klasiko baina harrezkero zaharkituaren lekuan, Gabrielelek bestelako balioak, kezka biziagoak eta forma hurbilagoak

eskaintzen zizkion gazteriarri, euskara ulergarriago eta praktikoan aurkezturik. Ez zen harritzekoa, hortaz, batxilergo eta unibertsitateko ikasleen artean Arestiren obrak ideario berriaren sinbolotzat hartzea. Euskal kultura, alde batetik, zapaldurik eta, bestetik, mespreziaturik zegoen garai hartan, Bilboko poetaren obrek ozenki aldarrikatzen zuten norbera aldi berean euskaldun eta aurrerazale izan zitekeela, eta euskaraz mintzatzea eta idaztea ez zela atzerakoi edo irrigarri gelditzeko motiboa.

11



GABRIEL ETA GAZTEAK

Gazteen arteko arrakasta hura ikusita, garai hartako kantari ospetsuenek berehala jarri zieten musika Gabrielen poemei. Lehenengo, Xabier Letek eta gero, batez ere, *Oskorri* taldearen antolatzaile izan zen Natxo de Felipek lau haizeetara hedarazi zuten Arestiren poesi eta gizarte-mezu bortitza. Poema batzuk, gainera, *Gure ama Itsasoa* adibidez —Ondarroako marinel-kanten txapelketan saritua—, *Oskorri*-k kantatzeko prestatu zuen Arestik. Kanta horietako batzuk jadanik herri-folklorekoak bilakatuak dira (*San Simon eta San Juda* eta *Egun da Santi Mamina*, adibidez) eta maiz horiek kantatzen dituen jendeak ez daki, jakin, norenak diren ere, halaxe, betidanikoak balira bezala edo ikasi ditu eta, *Anteron txamarrotea* edo *Boga-Boga* bezalatsu.

Gazteekin tratu handia eta zuzena izaten zuen. Kultur elkarteetan maiz hitzaldiak egin eta, ondoan, bera entzutera etorririko gazteekin baso erdi bana edatera edo afaltzera joaten zen, garaiko kezkez eztabaidatzeko. Behinartzat, Bartzelonako Unibertsitatean ere hitzaldi bat egin zuen, bertan ikasten ari ziren euskaldun estudianteei antolaturik.

Orduko euskal kulturaren egoera ikusita, ez zien Gabrielelek muzin egiten lan apalagoei eta horien premia ikusten zuenean prest egoten zen beti gazte eta gazteagoen beharrez erantzuteko. Hori dela eta, *Asterix*-en komiki ezagunak euskaratu zituen, eta behin haurrentzat ipuin-disko bat atera behar zela eta, bere boz sendo eta sakona eskaini zuen Txanogorritxoren otsoarena egiteko.



BILBOKO EUSKALDUN BERRIA

Abertzale motelek bere alferkeria ezkutatzeko, euskara, umetandik ez bazen, ikastezina zela esaten eta sinestarazten ziguten garaian, Aresti, bere jarrera pertsonalarekin, erabateko mito-hausle izan genuen. Bere bizitzan zehar argi utzi zuen bigarren hizkuntza, gogoz eta sentimenduz hartzen denean, norbere eguneroko, norbere sentimenduen eta sormenaren lehen hizkuntza bilaka zitekeela. Arestik bere gogo, ahalegin eta ekimen setatiarekin euskara, etxe aberatseko neskame pobrea, ordurarteko Mari Errauskin mespreziatua, baserriko sutondoko errautsetatik atera eta, bere lumarekin,

ipuineko maitagarriaren makilatxo miragarriaz bezala, haren pobrezia nobletu eta haren baitako balio ezkutatuak nabarmendu zituen, behartsuak ere, duintasunez, txukun eta apain ibil daitezkeela erakutsiz, haren distirarekin Euskal Herriko jendea liluratu arte.

Bere garaiko gazte abertzaleen eredu imitagarria bilakatu zen Aresti, eta anitz hasi ziren beragatik euskara ikasten. Halaxe aitortua du Jon Juaristik berak, gaur euskal bidetik saihestu xamar dabilkigun arren. Egiazki esan dezakegu, gure artean bera izan zela, F. Krutwig eta Txillardegirekin batera, ondorengo belaunaldi osoaren aitzindaria.

13

EUSKAL HERRIKO ARTISTEN LAGUNA

Ernazimenduko gizakien bidetik, literaturaz landa Arestik giza antzearen adierazpen guztiak ere zituen maite. Bere garaian, adibidez, adiskidetasun handia izan zuen, besteak beste, Jorge Oteiza eta Agustin Ibarrola artistekin. Beronek, gainera, bere *Euskal Harria* liburuaren edizioaren marrazki bikainak egin zizkion, apaingarri.

Arestiren poemek —*Nire aitaren etxea defendituko dut*, adibidez—, iradokizun ederra eskaini diote euskaldun artistei. Aipatzekoa da, adibidez, Eduardo Txillidaren *Gure aitaren etxea* deritzon monumentu erraldoia, Gernikan eraikia.



Agustin Ibarrola pintatzaileak bere marrazkiekin *Euskal Harria* poema liburua apaindu zion



Gure aitaren etxea, Txillidaren eskultura erraldoia Gernikan, Arestiren poeman oinarritua.

BESTELAKO IDAZLANAK

Gabriel Arestik teatro-lanak ere gogoz idatzi zituen: *Mugaldeko herrian eginikako tobera*, *Justizia txistulari*, *Etxe aberatseko seme galdua eta Madalenaren seme santua*, ...*eta gure heriotzeko orduan*, *Beste mundukoak eta zoro bat*, besteak beste. Zaletasun horrek Pedro I. Barrutia Arrasateko eskribauaren *Gabonetako Ikuskizuna*, lehenbiziko euskal teatro lana, sakonki aztertzeraz bultzatu zuen, eta ederki baino ederkiago nabarmendu zituen XVIII. mende hasierako obra zokoratu horren literatur balio ezku eta harrigarriak.

15



Egan, 1961.



Egan, 1967 urteko eranskina.


Haren lumatik helduriko eleberri bakarrak, *Mundu-munduan*, helburu didaktikoz egin zuen. Artikulu mordoa ere argitaratu zituen Gabrielelek *Zeruko Argia*, *Olerti*, *Egan* eta *Anaitasuna* aldizkarietan. Horieta asko polemiko, probokatzaile eta latz xamarraz izaten ziren.



Egan, 1962.



Euskal Elerti, 1969.



Euskera, 1960.

Hain emaitza baliotsuekin ez da harritzekoa Euskaltzaindiak 1957an Gabriel Aresti euskaltzain urgazle izendatzea, hau da, Euskaltzaindiaren kide laguna. Harrezkero, Gabrielelek bileretan parte hartzen zuen, literatur eta hizkuntz eremuetan bere iritzi eta proposamenak azalduz.

ARESTIREN FAMILIA

1960. urtean, Gabriel Aresti, 26 urte zituenean, Amelia (Meli) Estebanekin



Gabriel eta Meli, beren ezkontza-egunean.

ezkondu zen. Bere emaztea, Meli, edertasun nabarmeneko andrea, poetaren musa bilakatu zen. Gabrielek hura biziki maite zuen eta poema bikainak eskaini zizkion. Hiru alaba izan



Oso aita jator eta umezalea zen Aresti.

17



Gabriel harro sentitzen zen bere alabez.

zituzten: Nerea, Gurea eta Andere-Bihotz. Irala auzotegian bizi ziren. Aita gisa, gizon maitakorra zen erabat, haurrekin jolasean aritzea atsegin zuena.

Azpimarratzekoa da, noski, Arestik bere alabei euskal izenak ipintzean erakutsi zuen borondatea eta ahalegina, jarrera hori ez baitzen inola ere hain erraza Francoren diktaduraren garai hartan.



Meli eta Gabriel, beren hiru alabekin: Nerea, Gurea eta Andere.

GABRIELEN IZAERA

Sarritan G. Aresti gizaki zakar, muker eta haserrekoztat aurkeztu nahi izan da. Ondo ezagutu genuenok, ordea, zin-zinez esan dezakegu, egiazki oso bestelakoa zela. Pertsona lagunkoia zen, irribarretsua eta umore onekoa, txantxetan ibiltzea gustatzen zitzaiona. Horrek ez zion kentzen, ordea, zirikatzaile eta istiluzale galanta izatea. Eta agian horrexek ekarri dio batzuek hortik hedarazi dioten fama txarra.

Gabrielen iritziz, euskal mundu tradizionala geldoegi zegoen, maiz uste faltsu bezain kritikagabeen gainean eraikirik, eta euskara eta euskal kultura plazara aterako baziren, hura guztia astindu beharra zegoen. Berak kulturaren borroka eta eztabaida-giroa sortu eta eragin nahi zituen, bakeak, Francok hainbat aldiz aldarrikaturiko bake motelak, hilerrietako lasakeria hark, haren hitzetan "euskarari kalte egiten baitio".

Ezin uka daiteke, alde batetik, Arestik oso gogokoa zuela probokatzaile agertzea. Biziki gustatzen zitzaion betiko jende tradizional lasaia bere senetik ateratzea, eta haien topiko zaharrak hankaz gora jartzea. Inoiz hitz biribilegiak ere erabiltzen zituen haien

moteltasuna kritikatzeko. Kontraesanak azaleratzeko asmoz, noiz behinka, gainera, eskandalu batzuk ere antolatzen zituen, ortografian edo ideologian, horri buruzko eztabaidak sustatzeko.

Askok ez zioten gazte hari ausartzia hori inoiz barkatu eta era guztietako irainak eta difamazioak asmatu zituzten haren kontra: erlijioaren kontra zebilela, komunista zela, espainolista eta antiabertzalea besterik ez zela... Eta hura zokoratzen ere ahalegindu ziren. Alferrik baina, Aresti bezalako erraldoia ez baitzen erraz kikiltzen, eta haren aurka eginiko erasoei are kritika gogorragoekin erantzuten zien, pisu handiko arrazoiak jaurtiz.



Oso pertsona lagunkoia zen Gabriel.

Egia da alderdi eta talde abertzale batzuen sektarismo eta dogmatismo batzuen kontra mintzatu zela. Baina antzeko eztabaida latzetan jarduten zuen sarritan Espainiako Alderdi Komunistakoekin edo antiabertzaleekin ere, euskararen eta euskaldungoaren defentsa sutsuan. Polemika odolean zeramala esan liteke, beti honen eta haren aurka, jarririko eta onarturiko ordena eta lege guztiak puskatu nahian, saltsa guztien eragile.

Edonola ere, aitortu behar da Arestiren eraginez euskara, ordurarte museoko erlikia moduan bai baina zeregin praktikoetarako ia inork aipatzen ez zuenean, eztabaidagai bilakatu zela eta gero eta lagun gehiago hasi zirela gure hizkuntzaz arduratzen, prentsa bera ere euskal munduko albisteez kezkaraziz.

Erljio aldetik, fedegabea izanik ere, fraideen eta elizgizonen artean lagun onak zituen, Gabrielelek zintzoki estimatuak: L. Villasante, Iratzeder, P. Xarriton, B. Gandiaga, I. Berriatua, J. Azurmendi, J. Intxausti, J. M. Torrealdei, N. Altzola Gerediaga, P. Altuna... Alde horretatik pertsona erabat tolerante eta irekia zen .

Gabrielek beste ezaugarri bat zuen, oso nabarmena: langile porrokatua

izatea. Zerbaitetan lanean hasten zenean, gramatika edo literatura arloan, orduak eta orduak ematen zituen nahi edo behar izandako datuak aurkitu arte, eta maiz gau osoak pasatzen zituen liburuak aztertzen, argibideak biltzeko. Euskaltzaindira aurkezten zituen lanetan hori guztiori nabarmen ageritzen, guztien mirespenerako.



Umore oneko gizona zen gure poeta.

ARESTI ETA EUSKARAREN BATASUNA

Gabriel Arestiren izena beti agertuko da loturik gure hizkuntzaren literatur batasunarekin.

Gaur egun inork ez du euskararen batasunaren premia zalantzan jartzen. Gehienik ere, euskara batuaren osaeran euskalki ezberdinek izan behar duten partaidetasunaz edo batasunerako aukeratzen diren hitzen egokitasunaz egin daiteke eztabaida, baina euskarak, bizirik segitzeko, batasuna behar duela mundu guztiak ikusten du gure egunotan. Ez zen hori gertatzen, ordea, duela hogeita hamar urte, Arestiren denboran. Orduan askok uste zuten euskalki guztiak berdin landu beharra zegoela eta guztietan eskaini zitekeela irakaskuntza, hau da, munduko gainerako kultur hizkuntzek orok



Gabriel (hirugarrena ezkerretik) Euskaltzaindiko lagunekin.



Aresti Azkoitian, Euskaltzaindiko lagunen artean. Ezkerretik eskuinera: Nikolas Altzola, Alfonso irigoien, Koldo Zuazo, G. Aresti eta Xabier Kintana.

batasuna
egina zuten bitartean,
gureak, salbuespenez, batasunik
gabe iraun zezakeela.

Zorionez, orduko idazle hoberenak
ongi konturatuak ziren absurdu
horretaz. Haien artean Aresti. Eta
asmoetatik eginetara lehenbailehen
igarotzeko pertsona zenez, ahaleginak
egin zituen batasunaren lehen
urratsak bultzatzeko.

1964. urtean Ipar eta Hegoaldeko
euskal idazle-talde batek bilera bat
antolatu zuen Baionan. Helburua:
euskararen literatur batasunerako
oinarriak jartzea. Aresti, lehenbiziko
unetik, horren alde agertu zen. Ongi
konturatzen zen, ordea, mugimendu
hark arrakasta izango bazuen,
beharrezkoa zuela goi-gidaritza, eta,
beraz, zeregin hori Euskararen

Akademiarena zela. Euskaltzaindian,
ordea, ez zegoen garai hartan giro
onegirik batasunaren alde. Halere,
Arestik, gure Akademiaren 50.
urteurrena ospatzeko, Arantzazun
Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean
batzar berezi bat antolatzea eskatu
zuen. Gabrielen proposamena onartu
eta hortxe hasi zen, era ofizialean
behintzat, gure mintzairaren batasuna.

Arantzazuko erabakiak kaleratu eta
jendartearen ezagutarazteko, Arestik
bilera batzuk antolatu zituen Ermuan
eta Eibarren euskal idazleekin eta
Batasunaren Kutxa

izeneko hiztegitxo
argitaratu ere bai,
euskal hitzak
euskaraz azaltzen
zituen
lehenbizikoa.
Geroztik, Gabriel
Arestik lanean
jardun zuen
Euskaltzaindian
aditzaren
batasuna
1973an lortu

arte. Horretarako,
Etxepare, Leizarraga eta Axularren
aditz-sistema osoak aztertu zituen,
lan-batzorde horretako lankideei
aztergai bikainak eskainiz. Ikerketa
horietariko batzuk *Fontes Linguae*




Vasconum hizkuntzalaritza-aldizkarian eman zituen argitara.

Baina Mitxelenak berak aitortu zuenez, lan teoriko hauez gainera, G. Arestik batasunari egin zion mesederik handiena bere obra idatzia bera izan zen. Izan ere, are batasuna plazaratu baino lehen, Arestik euskara batuaren eredu propioa erakutsi zigun bere poesi lanetan, eta literatur hizkuntza horren edertasunak eta balio praktikoak gainerako idazleak liluratu eta erakarri zituen, prosan Txillardegik bere eleberriekin egin zuen bezala.

Euskara batuaren alde hainbat artikulu argitaratu zuen *Anaitasuna* aldizkarian, hor A. Zelaieta eta I. Berriatua lankide izanik. Bestalde, batasunean sakondu eta hura finkatzeko asmoz, 1973an *Hiztegi tipia* argitaratzen hasi zen, nolabait oraingo euskal entziklopedien bide-urratzaile.

Ez zegoen, ordea, herri-euskara jator eta dialektalaren aurka, ongi baitzekien hortik zer nolako altxorra atera zitekeen. Bera izan zen, adibidez, Justo Mari Mokoroaren *Ortik eta emendik* esapide-hiztegia argitaratzeko lehenbiziko ahalegin erabakigarria egin zuena, horretarako diru-laguntza ederra lortu zion eta.

22



ARESTI ETA LUR EDITORIALA

Irakaskuntza osoa erdaraz genuen garaian, garbi zegoen euskal literaturak ezingo zuela aurrera egin, baldin eta belaunaldi gazteek euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten ez bazuten. Hortixek sortu zen Alfabetatze-Kanpaina, Rikardo Arregi kazetari gipuzkoar gaztearen eraginari esker. Ez zen nahikoa, ordea, euskaraz irakurtzen jakitea, gazteen gogoko irakurgai interesgarriak ere behar ziren, eta horretarako dibulgazio-lan modernoak plazaratzeko editoriala sortu beharra zegoen.

Arregiren inguruan, Gabriel Aresti, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Arantza Urretabizkaia, Luis Haranburu eta Ierro hauen egilea bildu ziren, besteak beste. Horrela antolatu zen *Lur-Editoriala*, gure hizkuntzaren batasuna eta euskal kultura eraberritzeko helburuarekin. Hor Gabrielen lana ezin ahantzizkoa izan zen.

Bere azken urteetan, editorial honen bidez, Bernardo Atxagarekin ere izan zituen harremanak Arestik. Euskal letretan nabarmentzen hasi berria zen gazte hari adonezko hitzak ematen zizkion, aurrera segitzeko animatuz.

GABRIELEN HERIOTZA

Gabriel Aresti 1975.eko ekainaren 5ean hil zen, Bilboko Ospitalean eginiko ebakuntza baten ondorioz, 42 urte betetzeko oraindik. Hiletan, haren adiskide mina zen Imanol Berriatua frantziskotarrak eman zuen meza, sermoi eder bezain hunkigarriarekin. Jendeak ere, gazteriak bereziki, azken omenaldia eskaini nahi izan zion eta eliza mukurruraino bete zuen. Biharamunean ere jendetza handia bildu zen Derioko hilerrian. Juan San Martin euskaltzainak, Eibarko apaiz laikoen tradizioari jarraituz, adiskide guztien izenean agur hitzak esan zizkien hunkiturik bertan zirenei, guztiok, Gabrielen antzera, aitaren etxearen alde segitzeko prest.

23



Euskal kulturak galera handia izan zuen haren heriotzarekin. Mitxelenak prentsara eginiko adierazpenean XX. mendeko euskal poetarik hoberena galdua genuela esan zuen.

Urte bereko azaroak Franco diktadorea eraman zuen mundu

honetatik, eta Euskal Herria gau ilunaren ondoko egunsenti argia hasi zen ikusten. Arestik ereindako harrizko euskal hazia laster erneko zen. Herriak ez du bere semea ahortzi eta zenbait kalek eta irakaskuntza-institutuk haren izena daramate, betiko oroigarritzat.

24



Gabriel Melirekin.